

Ander Goikoetxea bere doktore-tesia irakurri du

2011/05/09

Maiatzaren 5ean goizeko 12etan, Ander Goikoetxea Arana doktoregaiak bere tesia aurkeztu zuen Pedro Biteri y Arana Ikastetxe Nagusiko Areto nagusian. Bere tesiaren titulua hau da: 'Sorkuntza barreiatuaren integrazioa energia metatzeko sistemak erabiliz'.

Bere tesiaren zuzendariak Jonan Barrena eta Miguel Rodriguez izan dira.

Doktore hauek osatu zuten epaimahaia:

- Eduardo Ramón Galván Díez (Sevillako Unibertsitatea)
- Henrik W. Bindner (Risoe DTU)
- Haritza Camblong Ruiz (Ecole Supérieure des Technologies Industrielles Avancées)
- Lukas Sigrist (Pontificia de Comillas Unibertsitatea)
- Gonzalo Abad Biain (Mondragon Unibertsitatea)

Tesiaren gai zentrala honetan datza, energia berriztagarrien eta Sorkuntza Barreiatuaren (SB) erabilera azkorrek erronka berriak aurkezten ditu sare elektrikoaren orain arteko ereduari dagokionean. Sare elektriko zentralizatutik sare elektriko barreiatu baterako aldaketak hainbat arazo sor ditzake sare elektrikoaren kontrol egokiari dagokionean.

Tesi honetan Energia Metatzeko Sistemen (EMS) erabilera eztabaidatzen da aipatutako erronketatik eratorritako zenbait arazo konpontzeari begira. EMSen zenbait aplikazio aztertzen dira eta simulazio bidez eta EMS hibrido bat proposatzen da aplikazio desberdinei erantzuna emateko.



Argazki honetan, Ander Goikoetxea epaimahaikoekin aurkitzen da.